

Funtsezko jarduerak

Zein dira zuen proiektua ondo funtzionatzeko egin behar dituzuen jarduerak garrantzitsuenak?

Gure proiektuak ondo funtzionatzeko eta arrakasta izateko, hainbat jarduerak nagusi burutu behar ditugu. Jarduerak hauek funtsezkoak dira gure negozio-eredua martxan egon dadin:

- **Ekoizpena:**
 - **Txip elektronikoaren diseinua eta fabrikazioa:** Jarduera hau gure proiektuaren oinarria da. Txipak diseinatzea eta fabrikatzea ezinbestekoa da; txip horiek animaliei kalterik egin gabe txertatu behar dira. Gainera, zehatzak izan behar dute datuak jasotzeko (osasun-egoera, kokapena, arriskuak).
 - **Softwarea garatzea:** Lenovo tableten softwareak gure sistema osatzen du. Bezeroentzat erabiltzeko erraza eta intuitiboa izan behar da, baina aldi berean sendoa, uneoro informazio ugari kudeatzeko gai izan dadin.
- **Arazoen konponketa:**
- **24 orduko bezeroarentzako arreta:** gure bezeroek produktua erabiltzeko arazoak izanez gero, talde tekniko bat izango genuke horiek konpontzeko.
- **Etengabeko eguneraketak:** gure konpainiak bideratuko duen gauzetako bat software eguneraketak izango dira. Beraz, gure produktuek hobekuntza progresiboa izango dute eta merkatuan lehiakortasun handiagoa izaten hasiko dira.
- **Plataforma edo sarea:**
 - **Webgunearen kudeaketa:** Webgunea gure negozioaren erdigunea da. Diseinu erakargarria eta erabilerraza izateaz gain, eskaerak egiteko, kontuak kudeatzeko eta laguntza jasotzeko erraztasunak eskaini behar ditu.
 - **Logistika eta garraioa:** Produktuak Espainian, Brasilen eta Indian banatzea ezinbestekoa da. Espainian kamioiak erabiliko ditugu eta, atzerrian, itsasontziz bidaliko ditugu produktuak. Bidalketa guztiek denboran puntuala eta segurua izan behar dute.